

**ORTZAIZEKO  
HERRIKO  
ETXEA**  
—  
MAIRIE  
D'OSSÈS

# 2024 KO URTEKARIA

## AURKIBIDEA

Aurrekondua- 2

Estado zibila - 5

Hirigintza - 6

Hilerria-14

Ortzaizeko bizia- 15

Herriko Zerbitzu Soziala - 29

Herriko ontasunak - 30

Eskolak - 31

Kultura - 35

Obrak - 38

Laborantxa-39

Garapen iraunkorra - 42

Nahas Mahas - 43



## AUZAPEZAREN HITZA

Urte berri hastapen huntaz baliatzen niz, zuer dener urte on eta zoriontsu baten desiratzeko!

Desafio berri bezain erakargarriak agertzen zauzkigu egunero.

Ekainean iragan ziren Europako hauteskundetarik landa, giro nahasi batetan sartuak gira eta hortarik ateratzeko zailtasunetan gira mementoan.

Kontseilu orokorraren bat-bateko bezain bortitz gibel egitearekin hasi bazen ere, geroztik gainerateko finantzatzaile publiko guziek beren nekeziak adierazi dauzkute herriek eremaiten dituzten proiektuen laguntzeko.

Arrosategia, Zubi aldeko zubia, hilerria edo Arranoaken aldagelak dira gure lehentasunetan.

Martxan diren eta ezin gibelatuak izanen diren ekimen horiek, herritarren segurtasun eta ongi izaitea dute helburu.

Ez dugu berehala neurtuko Arrosategiaren erosteak ekarriko duen ekarpena Ortzaizeri. Dakiguna, desafio eta proiektu haundi bat dela gure herriarentzat. Hein hortako gutti ezagutu ditugu, izanikan ere aitzin pausu bat gure herri barnekaldearen antolaketan!

Diru laguntza bilatzea biziki zaila agertzen bazaiku ere, gogotsu egoiten gira proiektu hauen bururaino eremaiteko, bizi baldintzen hobetzea eta xerbitxu egitea direlarik gure erronketan.


Hautuen egitera behartuak izanen baldin bagira ere, erraiten ahal dugu, herriak diru mailan duen osagarri onari esker, pentsatzen dugula proiektuen aitzina eremaiteari.

Guri aterabideen atxemaitea!

Urte berri on deneri!


# AURREKONDUA

## FUNTZIONAMENDU GASTUAK



Kargu orokorra	448 503 €
Langileria kargua	341 700 €
Egunerokotasuneko beste karguak	304 500 €
Beste (finantza karguak, ez ohizko karguak, NGIR berriz isurtzea)	20 089 €
Inbertsio sekziora buruzko transferentzia	1 058 652 €
<b>OROTARA</b>	<b>2 173 444 €</b>


## INBERTSIO GASTUAK



Bideak eta artzain bideen segurtatzea	275 000 €
Eragiketa desberdin batzu (Herriko eraikinak, Denen etxearen arraberritzea, Autopartekatze gunea, obra desberdin batzu ...)	369 000 €
Arrosategiaren arraberritzea eta eremu publikoen sortzea	150 000 €
Zubi Aldeko zubiaren konpontzea	505 050 €
Hilerriaren berrantolatzea	100 000 €
Aitzineko inbertsioko ziloa, maileguen kapitalaren itzultzea, bermea	214 651 €
<b>OROTARA</b>	<b>1 613 701 €</b>


# AURREKONDUA

## FUNTZIONAMENDU DIRU-SARTZEAK



Zerbitzuen emaitza	89 880 €
Zergak	492 683 €
Diru laguntzak	302 826 €
Eguneroko kudeaketako beste diru-sartzeak	85 000 €
Langileriako karguen diru-itzultzea	501 €
Aintzineko funtzionamenduaren soberakina	1 202 554 €
<b>OROTARA</b>	<b>2 173 444 €</b>

## INBERTSIO DIRU-SARTZEAK



Bideetarako eta artzain bideen segurtatzeko diru laguntza	128 916 €
Autopartekaze gunea	96 090 €
Eragiketa desberdinak (Denen etxea, Artzaintza hobekuntzak, Ezkerparetako argiak)	71 436 €
Funtzionamendu sekzioaren transferentzia	1 058 652 €
Beste (Lur saltze, FCTVA, etxeratze zerga, bermea)	258 607 €
<b>OROTARA</b>	<b>1 613 701 €</b>

# AURREKONDUA

## FISKALITATEA

ZERGAK	HERRIKO TASAK 2023	ZERGA OINARRI AURREIKUSPENAK 2024	HERRIKO TASAK 2024	DIRU SARTZEAK
Eraikiaren gaineko lur-zerga	%30.32	895 700 €	%30.32	271 576 €
Eraikia ez denaren gaineko lur-zerga	%26.67	69 200 €	%26.67	18 456 €
Bigarren etxebizitzaren bizitegi zerga	%19	175 100 €	%19*	33 269 €
<b>OROTARA</b>				<b>323 301 €</b>

\*Bigarren etxebizitzaren bizitegi zergaren tasa ez da berrikusi, eraikiaren gaineko lur-zerga proportzio berean bakarrik handitu daitekeelako.

2024ko urtarriletik goiti, herriko etxe hutsak bigarren bizitokien tasari lotuak dira (12 517 euro 2024an).

## ZORRAK

2024an pagatuak: 94 545.42 € (86 143.93 € kapitala + 8 401.49 € interesak)

Zor den kapitala 2024/12/31n: 493 283.24 €

## HERRIKO MAILEGUEN BERRI


MAILEGU MOTA	MAILEGUAREN HASTAPENA	HASTAPENEN KAPITALA	MAILEGUAREN BUKAERA	PAGATZEKO DEN KAPITALA (2024/12/31N)
Xerrenda lotizamenduaren lur eremua	2005/01/21	162 500 €	2025/01/10	2 537 €
Florentzenea	2006/03/10	500 000 €	2026/02/25	36 882 €
Florentzenea berria	2012/02/11	299 225 €	2037/03/01	170 531 €
Arrosategia	2021/06/31	400 000 €	2033/07/21	283 333 €

Xerrenda lotizamenduaren mailegua aurten bukatzen da.

2025 urtean, mailegu guzien ordaintzeko, herriak 86 756 € pagatuko ditu.


## SORTZEAK

Ekaitz GARD 2024/02/19an  
Chloé LALAURETTE 2024/06/21an  
Aitor ALZURI 2024/07/16an  
Jon TROUNDAY GOYTY 2024/08/07an  
Leire ETCHEGARAY BORDA 2024/08/14an  
Robin GIORGINI 2024/08/29an  
Lyna BUROSSE 2024/09/14an  
Jeanne, Madeleine, Delphine ALCASENA  
2024/10/07an




## HERIOTZAK

Monique GLAUBERT 2024/03/17an  
Anita BISCAY sortzez BAYONES 2024/03/26an  
Marie-Noellie HÉGUY sortzez DELGUE 2024/04/20an  
Jean-Pierre TROUNDAY 2024/04/26an  
Francisco, Maria VIDEGAIN 2024/06/11an  
François ETCHEMAITE 2024/09/16an  
Michel DUHALDE 2024/09/21an  
Anna IRIART 2024/11/09an  
Jean-Pierre ARGAIN 2024/12/20an



## EZKONTZAK

Iñaki GOICOECHEA eta Amaia ETCHEBARNE 2024/05/18an  
Gérard MILLOT eta Annick DUFOURD 2024/07/13an  
Nicolas MAGENDIE eta Emmanuelle JORAJURIA 2024/09/21an



## DEMOGRAFIA



2022 urtean egindako biztanle kondaketaren ondorioz, INSEE-k jakinarazi digu hurrengo kondaketa arte, erreferentziako hartuko den datua: 876 Ortzaiztar.

## URBANISMO AGIRIAK

<b>GALDEZAILA</b>	<b>PROIEKTUA</b>
ARTIGUEBIEILLE Philippe	Etxebizitza baten eraikuntza
GUIROY Coline	Borda bat bizitegi bilakaraztea
FOUGERAY HUSTAIX Corinne	Etxebizitza baten eraikuntza
LAHIRIGOYEN Peio	Etxebizitza baten berreraikitzea

## AURREDEKLARAZIOAK

<b>GALDEZAILA</b>	<b>PROIEKTUA</b>
EDF ENR (OXOTEGUY Evelyn)	Iguzki panelen pausatzea
AGENCE SOLUTION CLIMAT (CAZADE Jean-Pierre)	Iguzki panelen pausatzea
ARTIGUEBIEILLE Jean-Bernard	Eraikitzeke xedearekin lur zatiketa
CELHABE Jean-Michel	Eraikitzeke xedearekin lur zatiketa
COBA ENERGIES RENOUVELABLES (DOCQUIER Stéphane)	Iguzki panelen aldaketa
SCI EYHERASARRIA	Eraikitzeke xedearekin lur zatiketa
GNS ENERGIE (ETCHEGARAY Pierre)	Iguzki panelen pausatzea
SARL ASTIGARRAGA	Iguzki panelen pausatzea
DUHALDE Jean-Bernard	Mendiko borda baten arraberritzea
HIRIGARAY Marie	Iguzki panelen pausatzea
HATS BERRI ELKARTEA	Iguzki panelen pausatzea

## ERAIKITZE BAIMENAK

GALDETZAILEA	PROIEKTUA
BISCAY Vincent	Jadanik baden laborantza eraikuntzaren handitzea
GUIROY Aurélia	Etxebizitza baten eraikuntza
GAEC MENDI XOLAN (IRIBARREN Colette)	Laborantzako eraikuntzaren eraikuntza iguzki panelekin teilatuan
COSTA Mixel	Transformazio laborategi baten eraikuntza (laborari etxearen garapenari loturiko obrak)
TROUNDAY ANAIK	Lan eraikuntza baten eraikuntza, bulegoak eta zurlan tailerrarekin
BORDABERRY Thierry	Etxe gibelaren arraberritzea
MONTAROU Sabrina eta JOSEFIAK Catherine	Auto aterpe baten eraikuntza
ALDAX Pierre	Laborantza aterpe baten eraikuntza
SALLABERRY Baptiste	Auto aterpe bat eta lokala tekniko baten eraikuntzak
ÇUBURU Maialen	Jadanik baden etxe baten arraberritzea
ORTZAIZEKO HERRIA	Arrosategia etxearen arraberritzea
SAS POTERIES GOICOCHEA	Sar-aterako bide eta kargatze lekuen sortzea



## HEGO BAXENABARREKO ELKARGO AZPIKO TOKIKO HIRIGINTZA-PLANA

Dokumentua apailatzeko lanak aitzina doaz. Diagnostiko nagusiak (ingurumena, sozio-ekonomia, laborantza...) aurkeztuak izan dira. Lurralde diagnostiko horri esker, Hego Baxenabarreko 44 herriei, Antolaketa eta Garapen Iraunkorren Proiektuaren (AGIP) bitartez, adierazitako norabide nagusiak eztabaidatzeko bidea emana izan zaie. Ortzaitzeko herriak AGIP eztabaidatu du 2024ko apirilaren 30ean.

AGIP bera eztabaidatua izan da Euskal Elkargoko kontseiluaren biltzarrean joan den irailaren 28an.


Diagnostikoaren ardatz nagusiak, hTHP proiektuaren norabideak eta hTHPak errespetatu behar dituen arauzko mugak partekatzeko xedez, herriak biltzar publiko bat antolatu zuen joan den urriaren 10ean, Euskal Elkargoaren biltzarrean hTHP apailatzeko arduradun eta planifikazioaren proiektu burua den Arhancet jaunarekin.

Hurbildu ziren hogeita hamar bat pertonekin, trukitzeak proiektuaren apailatzearen printzipioak aurkeztea ahalbidetu du, hirigintza-dokumentuak errespetatu behar dituen arauzko betebeharrak ugariei begira. Informatzeko eta partekatzeko xedez, eraikitzen ari diren zonakatzeko-proiektua aurkeztua izan da.

Gaur egun, zonakatzeko bururatzera doa herri bakoitzean, baita araubidearen eraikitzea (arkitektura, finkatzeak, goratasunak...).

Informazio plataforma bat eskainia zaio Hego Baxenabarreko hTHPari. <https://plui-sudbassenavarre.communauté-paysbasque.fr/> Horretan atxemaiten ahal dira ikerketa dokumentu guztiak.

Proiektuaren elaborazioan parte hartu nahi baduzu, zure oharrak adieraz ditzakezu lurraldeko herriko etxe guzietan, zure esku utzitako hitzartze liburuetan idatziz, edo Jaun Auzapezari edo Euskal Elkargoko Lehendakariari gutun bat idatziz.





Euskal Hirigune Elkargoa sortu denetik, Euskal Herriak eta Landeseko Seignanx herri elkargoak elkarrekin lan egiten dute Lurralde Koherentziaren Eskema dokumentuaren sortzeko.

Dokumentu honek proiektu politiko bat adierazten du, hautetsien 20 urtetarako xede politikoak azalduz. Lurraldeko helburu estrategikoak finkatzen ditu, lurraldearen antolakuntza eta garapen estrategiak zehaztuz eta aurreratuz.

Bakoitzaren eguneroko bizitzaren gaiak aipatzen ditu : nola eguneroko zerbitzu eskaintza indartu barnekaldeko lurraldeetan ? Zein izango dira etxebizitza beharrak eta nun lehentasuna eman? Nun eta nola errezibitu aktibitate berriak ? Nola lurraldea berotze klimatikoari eta baliabide gutitzeari egokitzen ahal da ? ...

66 hautetsi (60 Euskal Hirigune Elkargotik izendatuak eta 6 Seignanx herri Elkargotik) bildu dira 2020tik goiti SCoT-aren lantzeko. 4 hautetsi Garazi-Baigorriko lurraldetik heldu dira.

Lurraldearen erakargarritasuna orekatzeko, helburu hauek proposatzen dira:

- Euskal Herriaren barnekaldean : demografiaren berpiztea lagundu.
- Itsasbazterraren eta barnekaldearen artean den eremuan : garapena, bereziki ekonomikoa, indartuz.
- Itsasbazterrean : hiperaktibitatea guttitu.

Helburu gehienak gauzatuko dira hiri eta herri zentro dinamikoetan, hurbileko komertzio eta zerbitzuen mantentzearen eta garatzearen alde, eta gure aktibitate ekonomikoen lokalizatzea laguntzean.

SCoT-ak, politika publikoak gidatzen ditu. Elkargo Azpiko Tokiko Hirigintza planan diren herriarteko tokiko hirigintza planoak, SCoT-aren helburuen parte bat bete behar du herri mailan eta lurraldearen eskubideak arautu.


Ortzaizerentzat, zerbitzu, saltegi eta bizitegi eskaintzak atxikitzea edo garatzea da helburu, lekuko identitateak errespetatuz. Laborantzaren eta naturaren funtzioak zaindu behar dira, lurraldearen berezitasuna bermatzen baitute eta beharrezkoak baitira helburu ekonomiko, sozial eta ekologikoei egokitzeko.

2025eko urtean, proiektu hori Euskal Herriko eta Seignanx-eko biztanleekin partekatzen segituko da. 2024eko urtean, 17 bilkura publiko antolatu dira jandantik. Inkesta publiko bat egingen da hilabete batzuen buruan. Bukatu eta, hautetsiek bozkatuko dute dokumentuaren onartzeko. Interesatuak bazirezte, informazio gehiago atzematen ahal dituzue SCoT-aren webgunean : [www.scot-pbs.fr](http://www.scot-pbs.fr)

# ESKUALDEKO PARKE NATURALA (PNR)

Euskal Mendia (Ipar Euskal Herriko 158 herrietatik 111 biltzen dituen eremua) proiektu dinamiko bat duen lurraldea da, duela hamabost urte inguru egituratu zena, mendiko jardueren arteko elkarbizitzaren inguruko hausnarketa kolektiboen bidez eta erabileren eta jardueren bilakaeraren inguruko kontzientzia hartze batekin: mendia ez da gehiago hazkuntzarako lantresna soilik, beste hainbat jardueretarako eremua ere da.

2003an, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak "Agropastoralismoa, oihana eta aisialdi jarduerak uztartu Euskal Mendian" txostena landu zuen. Ondotik, tokiko eragileak mobilizatu ziren lurraldearen etorkizunaren inguruan elkarrekin hausnartzeko eta tokiko ondarearen bizia, kalitatea eta aberastasuna mantentzeko. 200 pertsona inguru bildu ziren, hautetsiak eta jendarte zibileko ordezkariak, Euskal Mendiari buruzko Garapen Iraunkorreko Hitzarmen bat elkarrekin lantzeko (2007). Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren Euskal Herria 2020 Lurralde proiektuaren baitan, pastoralismoaz arduratzen ziren lau Sindikatu Batzordeek bultzatu zuten. Euskal Mendia 2007-2014 Leader programak eraman zuen hitzarmen hori ekintzetara, gobernantza publiko-pribatua zuten garapen proiektu kolektiboak finantzatzeko Europako dirulaguntza batekin. Programa horrek sortu zuen dinamika kolektibo azkarraz oharturik, Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak erabaki zuen bigarren Leader programa bat (2014-2020) abiatzea, mendiko eskualde horri zuzendua. Momentu horretan sortu ziren Parke Naturalari buruzko lehen gogoetak (2014), ekintza, epe luzeagoan iraunarazteko xedearekin. 2017-2018an Euskal Mendia Eskualdeko Parke Naturala (EPN) proiektuaren egingarritasuna aztertu zen, Euskal Hirigune Elkargoak eta Euskal Herriko Mendi Elkargoen Batasunak egin egokitasun eta egingarritasun ikerketa baten bidez, segurtatzeko Euskal Mendiak EPNen irizpideak betetzen zituela. Ikerketa horren oinarria Jendea-Natura-Kultura triptikoa argitan ezartzea eta balioztatzea zen, hau da, jendeak mendian betetzen duen rola, bere jardueren bidez (bioaniztasuna, paisaiak, dinamika, lotura soziala, turismoa, etab.). 2019an Eskualdeko Prefeta andereak ikerketa onartu zuen. 2020 eta 2022 artean, EPN proiektua sustatu zuten hautetsiek «informazio itzuliak» egin zituzten Herriko etxeetako hautetsiekin eta sozioprofesionalekin bilduz.



2020an gobernantzari buruzko lanketa abiatu ondotik, Euskal Mendia EPNaren proiektuak urrats garrantzitsua eman du 2024an prefiguraziorako sindikatu misto baten sorrerarekin, egitura horrek baitu hemendik aitzina Euskal Mendia EPNaren sorrera proiektua gidatuko. Kide sortzaileetako ordezkariak osatzen dute (Euskal Elkargoa, 5 Sindikatu Batzorde, Akitania Berria Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua) eta sindikatu misto honen eginkizun nagusiak lurraldeko eragileekin batera Hitzarmena edo bide-orri operazional bat eraikitzea eta sailkatzearen administrazio-prozedura izendapena lortu arte segitzea dira.

Orain, Hitzarmen horren edukia idatzi behar da: zein dira Euskal Mendiaren lehentasunak 2040ari begira? Nolako mendia utziko diegu gure haurrei? Zer espero dugu eta zer ez dugu espero mendi eremu horretan? Elkar aditze tailerrak abiatu dira 2024an eta 2025ean segituko dira hautetsiekin, herritarrekin, elkarrekin, sozioprofesionalekin... Euskal Mendiaren etorkizuna elkarrekin idazten eta eraikitzen segitzeko.

## ZUBIALDEKO ZUBIAREN ARRABERRITZEA

CEREMA-ren txostenaren ondorioz, Ahatsako Jean-Marie LURO egitura-azterketa bulego kontratatu dugu diagnostiko sakonago bat egiteko. Bulego horrek, obra zuzendaritza eta jarraipena egiteko agindua ukan du. Estankitate, egitura eta ekipamendu lanak aurreikusi behar dira, denetara 464.887€ BEZik gabe, horietatik 28.598€ BEZik gabe ikerketa gastuak. Uraren legearen arabera, dokumentu bat aurkeztu da Estatuaren zerbitzuetan. Ondotik, enpresen hautaketa eginen da. Lanak 2025eko uda partean egin nahi dira, ibaietako ur mailak jaitsiko diren garaian, eta 4 hilabete iraunen dute. Ahaizeko bidea, lanen parte batean hetsia izanen da.





# PLAZAREN ANTOLAKETA: ARROSATEGIA

Bilkura publikoetan, herri barneko antolaketa orokorrari buruz eman diren gogoeta eta oharren ondorioz, proiektu bat sortu dugu.

Herriko etxea Arrosategian kokatzea, bilkura gelak proposatzea, bi eskolen sartzeak segurtatzea, biziko den plaza bat... Elementu berri hauek guzietan lagundu behar lukete herri barne lasai eta segur baten ukaiten.

Eraikuntza baimena onarturik, arkitekto taldeak enpresendako deialdia egin du. Bixtan dena herriko ofizialer ere zabaldua zen eta interesatuek, beren dozierrak pausatu dituzte. Egutegiaren arabera, lanek urte hondarreko eginak behar lukete. Diruztatzeari dagokionez, diru laguntza batzuetan jadanik segurtatuak ditugu; Herri Elkargotik bi proiektu deialdiren bidez eta Departamenduaren polizia isunen kutxatik. Estatuko, Eskualdeko eta TE 64-eko dirulaguntzen erantzunen beha gira. Gaineratekoa Herriko diruak eta mailegu batek estaliko ditu.

Arrosategiako sartzean, Herriko etxea eta posta agentzia kokatuko dira, eta azpian artxiboak. Lehen estaian, osagarri edo hirugarren sektoreari buruzko bulegoak izanen dira. Teilatu pean, enpresari eta herriko elkarteri idekia izanen den gela haundi bat atxemanen duzue behar den antolaketa guziarekin. Igogailu eta ibilbide bati esker, tokirat errexki sartzen ahalko da.

Kanpoko antolakuntzaz bi hitz: sartzea, bide nagusitik egingen da. Zentzu bakar batean, aparkalekura, plazara eta ezker paretara heltzeko. Aparkalekutik bi eskoletarako eta Herriko etxerako bidea segurtasun osoz egingen da.

Denbora berean eskola publikoko kanpoko eremua haundituko dugu, haurrer natural eta itzalgune espazioak eskainiz. Gisa berean oraiko Herriko etxeko gelak libratuko dira eskolari uzteko.







## 2022 urte hastapenean hasi zen hilerriko parte zaharraren egokitzapen proiektuak aitzina segitzen du.


### Zertan gira?

Administrazio egokitzapenaren bidez « lursail komun » izendatuak diren hilobiak familia-hilerrri bilakatzea bururatzekotan da. Familiak eskertu nahi ditugu beren ulermenaz eta laguntza baliosaz.

2023ko martxotik bilatzen ginituen eta erregularizatuak izan ez diren hilobien jabe batzuen berririk ez ukanki, hauek Herriak bereganatu ditu (2024ko martxoaren 7ko erabakia).

Beste gureganatze erabaki batzuk hartuak izan dira, batzuek beren hobiak utzi dituztelako Herriaren esku.

**Herriak bereganatu dituen hilobi guztiak arrosez agertzen dira plano huntan.**



### Eta gero?

Erran ginautzuen bezala, erregularizazio administratibo horren ondotik, obretan hasiko gira 2025 urtean:

-Hasiko gira, hilerrriaren segidan, herriko hezurgune edo osuario bat egiten, eta hori egin orduko, lehen hezur hondarren hobitiek ateratzeak egiten ahalko dira, herrak bereganatu hobietatik.

-Ondotik Herriak bereganatu dituen gune batzuetan, hilobi berriak plantan emanen dira eta hauek, galdea egin daukuten herritarrek arraproposatzen ahalko dira.

-Horrez gain, parte zaharreko sartze-ateratzeak erretzeko, familiekin adosturik, gaizki diren hilobi batzuk lekuz aldatuak izanen dira eta trabuan diren hil-monumentu batzuk ere lekutuak izanen dira (bakarrik diren kurutzeak, etab...) bai eta ere trabatzen duten landaketak.

### Kontsesio bat zuenganatu nahi duzue?

Oroitarazten dautzuegu 2023/05/02an eguneratua izan den Ortzazeko hilerriko barne araudia segituz, hobia eskura dezake besteak beste **“Ortzaizen bizi den pertsona bakoitxak (honek hor duelarik bere etxebizitza nagusia eta Ortzaizen pagatzen dituelarik herriko lur zergak).**

Irizpide hauer erantzuten duen herritar kontsesio nahiant bakoitxak, galde idatzi bat halarazi behar dio Herriko etxeari.



## “ELKARTEAK” LAN TALDEAREN HITZA

### - **Eskerrak**

Lehen lehenik Herriko etxeak eskertu nahi lituzke herriko elkarte guziak eta hauen biziarrazteko lanean ari diren kide guziak. Badakigu elkarte biziak denbora eta indarrak galdegiten dituela bakotxari eta dudarik gabe, lan hori baliosa da herria biziarrazteko, herritarren eskaintza zabala proposatzeko. Izan hiru eskoletako buraso taldeek antolatu ekitaldiak, 3. adinekoer zuzendu ateraldiak, Lakako lasterkaldia, Kulturaldia, Euskararen urtaroa, Ahaizemendi eta herriko bestak, lumako ihiztorren lehiaketa edo zerrendatzen ez ditugunak, denentzat bazen zer egin. Nola ez aipa ere aurten berriz abiarazi den Besta berri. Urte frangoz gabe egon ondotik, herritar frango bildu dira besta horren inguruan. Aurtengo Gaueko merkatua haatik ez da gauzatu ahal izan, aro txarrarengatik. Ondoko udaren beha egon beharko orain.

### - **Diru-laguntza banaketak**

Urte guziz, herriko elkarteek diru-laguntzak galdegiten ahal dizkiote Herriko etxeari, urtean zehar gauzatu nahi dituzten proiektuen eramaiteko. 2024an ere, diru eskaera txostenak lan taldean aztertu ditugu eta diru-laguntza banaketak apirilaren 30eko Kontseiluan bozkatu ditugu. Xehetasunetan sartu gabe, huna datu zenbait. Orotara, **25.920€** banatuak izan dira gisa huntan:

- o Herriko elkarteak: **15.070€**
- o Kanpoko elkarteak: **5.850€**
- o Kirol elkarteak: **3.050€** (25€ lizentzia bakotx)
- o Kolegioer laguntza: **1.950€** (50€ Ortzaitar bakotx).

Elkarteer oroitarazi nahi diegu 2025 urteko diru eskaera txostenak otsailaren 28ko berantenez helarazi behar dituztela.

### - **Arranoak**

Aurtengo ekainean jakin dugu ere, Arranoak zango baloi taldearen sasoi ezin hobearen ondotik, Herriko etxeak engaiamendu argi bat hartu behar zuela kirol taldearen alde. Alabainan, futbol federazioak jakinarazi dauku xapelgoa jokatzekotan Arranoak taldeak beharko dituela aldagelak zelaitik hurbil ukan. Herriko etxeak aho batez erabaki du beraz zango baloi taldea sustengatzea eta ahalegin guziak egitea aterabide baten atxemaiteko. Futbol zelai ondoko lur-jabeekin solasean hasiak gira, aldagelak Uxarako zelaitik hurbil eraikitzeko. Anartean, jokalaria guzieren bigarren fase ezin hobe bat desiratzen diegu! Lehena bezain ona izan dadila.


## - **Garbi**

Hitzeman bezala, ditugun berriak emaiten dizkizuegu erregulariki. Joan den otsailean, aitzineko urtean egin ginuen bezala, gutun bat igorri ginuen elkarteari gure proposamena berriz zehaztuz. Duela guti, erantzun bat ukan dugu eta Garbi elkarteak proposatzen dio Herriko etxeari berriz eskaintza argiki zehaztea alokatze enfiteotiko bati buruz abiatzeko, zinema gela eta Etxebertzea egoitzentzat. Beren proposamena interes handirekin aztertuko dugu eta berriak ukan bezain laster helaraziko dizkizuegu.

## - **Elkarteen arteko bilkura**

Urtea bururatu aitzin, joan den abenduaren 6an, bilkura bat antolatu dugu herriko elkarteekin. Hamabi elkarte hor ziren eta guretzat parada izan da zuzenki elkarteekin komunikatzeko, diru-laguntzei buruz, bainan ere aurkeztea Herriko etxeak plantan eman dituen tresnak, elkarteek hobeki eta errekiago komunikatzeko. Komunikazioa dela solas, bilkura horretan azpimarratu dugu zoin atxikiak giren gure hizkuntza den euskarari eta komunikazio elebidunari. Bilkura hori, taldekako lan batzuekin bukatu da. Gai desberdinen inguruan solasean arizan gira, hala nola elkarten beharrak, bakotxaren egin beharrak edo beste. Bilkura zinez aberatsa eta interesgarria izan da eta jorrazteko lan ildo batzuk atera dira, elkarten etxearena besteak beste.

Espero dugu 2025 urtea ere proiektuz betea izanen dela eta Ortzaiztar bakotxak gozatzeko manera atxemanen duela. Milesker elkateeri, milesker parte hartzaileeri.





## BESTA KOMITEA

Ortzaizeko gazteriak ekitaldi berri batekin hasi du urtea : Burger gaua. Gau horretan, guk egin burger-ak proposatu ditugu. Urtero bezala, komiteak Ahaize Mendi eta Ortzaizeko bestak antolatu ditu.

Eguraldia ez zen gure alde Ahaize Mendiko besten asteburuan, baina horrek ez ditu numbrea jin diren Ortzaiztarrak beldurtu.

Ortzaizeko bestak iragan dira, azken urteetako formatuarekin : kontzertuak ostiralean, mus txapelketa eta zikiroa ibiakoitzean, pintxo eguna igandean eta herritarren eguna astelehenean, Asteburuan. Herritarrak eta kanpoko jendeak elkartu dira besta egiteko eta biziki kontent gira Ortzaizeko plazari bizi eman baitakote.

Milesker handi bat herritar guziri, beti parte hartzen baitute guk antolatzen ditugun ekitaldietan, eta Herriko etxeari, urtean zehar ekartzen daukun laguntza garrantzitsuarentzat.

Urte bukaera honetan, elkarteko kide berriak errezebitu ditugu. Ortzaizeko gazteria usaiako eguberriko afarian elkartu da eta ondoko ekitaldien antolaketa hasiko du.

## GARBI

GARBI elkarteak, San Mixel ikastetxea, Etchebestia, ezker pareta eta zinema gelaren kudeatzailea da. Aurten ere herriko bertze elkarte batzuei, herriko jendeari eta kanpoko parte hartzaileei gelak eta ezker pareta erabiltzeko okasionea eman dugu.

Aurten, zombait animazio antolatu ditugu gure funtzionamendu gastuen eta lan batzuen pagatzeko: matahamien eta bixkotxen salmentak.

Ortzaiztar guziak 2025-eko animazioetan parte hartzera gomitatzen ditugu.

Aitzinetik milesker zuen sostenguagatik!





# ELKARTEEN HITZA

## ACCA: IHIZTARIAK

2024ko ekainaren 21ean biltzar nagusia iragan da, balantza baikorra egin da. Ehizaldietan parte hartze ona azpimarratua izan da.

Martxoaren 16an, ihiziko federazioak kutsadurari buruzko sentsibilizazio egun baten antolatzea proposatu zuen. Aukera izan da gure mendietan ziren hondarkinen biltzeko eta naturari zor zaion errespetua erakusteko.

Uztailaren 7an, ihiziko xakur lehiaketa bat antolatu dugu. Ortzazeko eta auzo herrietako ihiztariak egun hortan parte hartu dute. Herritaren parte hartze apala atxeman dugu. Ondoko ekitaldietan herritarrekin lotura gehiagoren sortzen saiatuko gara. Antolatzaile eta parte hartzaile guziak eskertzen ditugu.

Uztailaren 18an, seguritateari buruzko formakuntza bat antolatu dugu. Formakuntza hau beharrezkoa da, hamar urte guziz proposatua da eta beti parada ona da ihiziko seguritate arauen oroitarazteko.

2025 urtean ihizari lotua den ekitaldi baten muntatzeko xedea dugu. Jakinean atxikiko zaituztegu.

Basahuntzak manatu nahi badituzue, ez duda gurekin harremanetan sartzea.

Oroitarazten dugu bulegoko kideak edozoin galderari erantzuteko prest direla, izan dadin ihiztari edo herritaren ganik.

Ihiziko permisa pasatzeko edo ihizia hobekiago ezagutzeko ez duda gutarik hurbiltzea.

Kontaktua : [accaosses@gmail.com](mailto:accaosses@gmail.com)



## KEA, KIROLA EUSKARA AHOAN

Kea elkartearen abentura 2022 ko udaberrian hasi zen buraso talde bat bildu ginelarik. Lehen aldi batez elkartu ginen gure haurren kirol mundua aipatzeko. Orduan, bizpahiru elementu adierazgarri atera ziren.

Lehenik, talde kiroletan euskara ez dela segurtatzen ahal. Batetik, trebatzaile euskaldunak atxemaiteko zaila delako ; eta trebatzailea hala balitz ere, taldeko haur bat erdalduna bada, talde osoak erdaraz egiten duelako.

Bigarren konstatazioa, lehia biziki fite sartzen dela. Kirol bat egiten denean, aski fite konpetizioak, partidak edota matxak hasten dira eta haur guziendako ez dela egokia eta aktibitatea uzten dutela .

Azkenik, haur batzu enoatzen direla urte batez aktibitate berdinean.

Hiru konstatazio horietatik abiatuz, kirol ainitzako elkarte sortu genuen 2022ko udan. helburu horiekin : kirola euskaraz egitea noski, plazerra bermatzea elkarlaguntza sustatuz, mixtoa izaitzea eta usaiaz kanpoko jokoak deskubritzea.



Orduan, 2022-2023 ikasurtean hasi ginen konkretuki haurrekin.

Geroztik, astean behin biltzen gira bi taldetan Ortzazeko ezker paretan : 5.30 etatik 6.30 etara 6 eta 7 urteko haurrak dira eta 6.30 etatik 7.45 etara 8, 9 eta 10 urteko haurrak, hots, denak lehen mailako ikasleak.

Talde bakoitzean 25 bat haur dira. Horien laguntzeko, elkarteko buraso euskaldunak dira. Urtean bost kirol edo jarduera desberdin egiten dira, epe bakoitz kirol bat (6-7 astez, bakantzetatik bakantzetara). Horra jazko 5 kirolak : Atletismoa, kinball (Quebec etik heldu den baloin kirol bat), borroka jokia, roller eta ultimate (frisbee). Haurrak loriatu dira joko desberdinetan. Haatik, aro txarrarengatik, urte bukaerako ateraldia ezeztatu genuen. Pentsatua ginuen La Barre itsas bazterrera joaitea, skate parkean Rollerren praktikatzeko baita ultimate sablean. Heldu den urtean agian ateraldia gauzatzen ahalko dugu !

## URZAIZ ELKARTEA

2024 urtea bukatu berri da eta Urzaiz elkartearen bilana nahiko baikorra dela erran ginezake.

> **KORRIKA:** Euskal Herri osoa zeharkatu duen Korrikan parte hartu dugu eta nola ez! Ortzazeko Herriko Etxea eta gazteriarekin batera, Urzaizek Izpegiko azken kilometroetan euskararen alde laster egin du!

### > **Ipar Euskal-Herriko Euskaltzaleen Topagunean sartu:**

Ekainean bildu ginen, Hazparneko Xuriatea jatetxean, beste hainbat elkarteek osatzen duten Euskaltzaleen Topagunean kide izateko.

Izan ere, batzorde honek, Ipar Euskal Herriko beste euskara/kultur elkarteekin saretzeko parada eskaintzen digu. Mementoko, 8 elkarte batzordea osatzen dugu: Basaizea (Baigorri), Zabalik (Donapaleu), Mintza Lasai (Miarritze), Mintzaiari (Hendaia), Artetxea (Izturitze), Ote Lore (Larresoro), Biltxoko (Baiona).

Nazio mailan euskararen garapenaren alde lanean hartzeko helburutzat duen erakunde hunek, iparraldeko batzorde baten sortzea bultzatu du. Erran gabe doa, lana oraindik haundia dela baina, topagune hunen garapenaz segur girela!

Ondoko helburu nagusia, 2025ko Euskaraldiaren antolaketan parte hartzea izanen da. Egon adi!





> **KULTURALDIA ekainaren 20tik 22ra:** aitzineko urtean bezala, elkartearen baitan, kulturaldi baten antolatzeko xedea agertu zen. Aurtengoa, ekainaren 20etik 22rat iragan zen.

-Ostegunarekin, Mentan elkartu ginen, Fertxu Izquierdoren “... *Eta gauetik euria*” liburu aurkezpen musikatuaren entzun eta ikusteko.

-Ostiralarekin, Etxeberriako ezkaratzean, bertso afaria antolatu ginuen. 2023ko ekainean denek plazer hartu ginuen, horren berrantolatzea deliberatu ginuen, eta arrazoinekin! Maialen Lujanbio eta Mizel Mateoren bertsoen entzuteaz gain, afari goxo baten partekatzeko aukera izan zen.

-Ibiakoitza eta azken eguna, kontzertu eguna! Baina, musikaz baliatu aitzin, hurrei zuzendutako ikusgarri baten proposatzea pentsatu ginuen.

Horretarako, Eneka Bordato jinarazirik, hurrek, “Xana eta sudurgorri magikoa” ikusgarria ikusi ahal izan zuten Arrosategiko parkean.

Anartean, euriak ere kulturaldian parte hartzea deliberatu zuenez, berantago iragan behar zen kantaldia, Elizara pasaraztea erabaki ginuen. Han, “Ahots Hutsez” taldearen boz zoragarriak entzun ondotik, Ruper Ordorika eta Arkaitz Minereren aitzinean loriatu ginen.



### > **Haurren dantza kurtsoak :**

Aitzineko urteetan bezala, haurren dantza kurtsoek segitu dute Ortzaizen. Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren laguntzarekin, 15 bat hurrek aste guziz euskal dantzak ikasten dituzte Denen etxean. Maiatzean eta lehen aldikotz, Donibane Lohitzunen iragan den Dantzari Ttikin parte hartu ahal izan dute.



>**HARITUZ:** urrian, Axut! konpainiarekin partaidetzan eta HARITUZ festibalaren karietara, zonbait ekitaldi antolatatu ziren, hala nola:

-Urriaren 12an, beti ere Mentan, Mejillon Tigre kolektiboaren Spoken Word estiloko "Hitz esana" emanaldi umoretsua. Harri batez bi xori, Kafe liburudendaren urtebetetzea zelako ere bai! Charlotten eskertzeko parada izan da, urtean zehar egiten duen lanagatik.

-Urriaren 13an berriz, Goikoetxea Poterian: Pantxix Bidarten kontzertuaz gain, Oier Zuñigaren ERESIA antzezlanak ikusi ahal izan ginuen.

> **EUSKARAREN URTAROA abenduaren 1ean:** Euskararen Urtaroa neguko igande batez iraganen zela erabaki ginuen. Aurtengoa, parte hartzailea izanen zela hautaturik, egun osoan, hainbat ekitaldi proposatu genituen:

-Goizean Brunch tailerra Amaia Castorenek animaturik, hogeitabat Ortzaiztar bildu ziren kantina berrian, goizean elgarrekin prestatutako Brunch-aren partekatzeke.



-Ondotik, KEA elkartearekin partaidetzan, KINBALL iniziazio bat iragan zen, ezker paretan.

-Izerdi zonbait isuri ondoan, elgarrekin Josu Martinez zineegilearen "MIRANDE film bat egiteko zirriborroa" obrari so gelditu ginen.



### >Geroari begira:

2025 urtean, Urzaizek ber maneran ibiltzeko helburua du, hala nola, haurren dantza kurtsuak segituz, Topagunean engaiatuz eta hainbat ekitaldi antolatuz.

Bestalde, antzerki proiektua aitzina doa.

Antzerkia, 2025 urte bukaerara buruz estreinatzeke gogoak ginuke, horren berri jakinen duzue fite!

Azkenik, elkarteak hurbildu nahi duen bakotxari ongi etorria egin nahi dio.

Beraz, zuk ere ber helburuekin engaiatu nahi baduzu herriko batzorde batean, ez duda eta hurbilgure ikustera!

## ARRANOAK

Arranoek 2024 urte eder bat burutu berri dute. 11ko eta 7ko txapelketetan bi ekipa engaiatuak dira. 2024 urtean, lehen ekipak balentria ederra lortu du, D3 ko txapelketa lehen postuan bukatuz.

Urte osoan egin indarrei esker D2 mailara igotzeko eskubidea irabazi dute. Jokalari berri batzuekin sasoina ederki hasi dute, erdi denboraldian lehen postuan sailkatuz.

Uxaran geroz eta jende gehiago bildu da aurten, ez duda hurbiltzea herriko taldea sustengatzera. Arranoak taldeak bere partaide ezberdinak eskertu nahi lituzke, herriko etxea baita laguntzen duten enpresa ezberdinak.

Bertzalde, ortzaiztarren sustenguaren eske etorriko gira berriz ere urtarrilan egutegien banaketa ohikoaren kari. Eskertzen ditugu Ortzaiztarrak horien harreragatik. Laguntza horri esker 2025an, gure klubak bere 45. urtea hasiko du!





## GUTARTEAN

Huna 2024ean egin diren aktibitateak :

- Bi astetarik, arrakastatsuak diren arratsalde aisialdiak egiten dira,
- Bazkari batzu herriko ostatuetan,
- Autokarrez, bi ateraldi:
- Ekainaren 6an, Okina bixkotx lantegia Idauze-Mendin eta Ospitalepeko eliza,
- Urriaren 10ean, Bastidarra esnetegia Bardozen eta Bihotz sakratuaren kapera Hazparnen.



Bastidarra esnetegian

Eta urtearen bururatzeko, arrakasta ederra ukan duen Eguberriko arratsaldekoa Laia xokolategian.

2025ean, GUTARTEAN elkarteak bere 40 urteak ospatuko ditu eta segitzeko gogo duela oraino ainitz urtez elkarteko bolondreseri esker.

Kide berriak sartzen ahal dira 60 urte bete orduko eta ongi etorria izanen dute.



Ospitalepean elizaren ondoan

## ORTZAIZEKO IKASTOLAKO BURASOAK

Ikastolak Ortzaize, Irisarri, Suhuskune, Iholdi, Bidarrai eta Arrosako haurrei egiten die ongi etorria. Gaur, 66 familia dira ikastolan, 16 famili ortzaiztar, 97 ikasle eta horietarik 26 Ortzaizekoak.

2024an, ikastolak ekitaldi frango antolatu zituen : bertso afari bat urtarrilean Nere Elustondo eta Amets Arzallus bertsulariekin, Baigurako libertimenduaren bazkaria, xokoleta salmenta bat eta Nafarroaren egunean parte hartzea apirilean, Herri Urrats maiatzean, Mendikleta ekainean, talo saltzea Bidarraiko bestetan, Brik a brak-a irailan, pizza gaualdi bat azaroan eta arno eta xanpain salmenta urte hondarrean. Jankinezazue urte osoan zehar erosten ahal duzuela xanpaina, buraso batetatik hurbilduz gero. Milesker ekitaldi desberdinetan parte hartu duten herritarrei!

Urtea ongi hasteko sagarnotegi ateraldi bat antolatua izan zen urtarrilean burasoen artean giro polit bat sortuz.

Ekainaren 15ean ikasturte hondarreko besta iragan zen, haurrek antzerki eder bat presentatu zaukuten. Ondotik familia guziak elkartu ziren baso baten inguruan.

Abenduaren 20an, Olentzeroren kariatara bildu ginen. Lehenik, ikasleek sortutako dokumental bat aurkeztua izan zitzaigun, ondotik ama eskolakoek antzerkitxo bat eman ziguten eta azkenik eguberriko kantuek suaren inguruan kantatu genituen.



Aurten ere, euskararen erabilpena sustatzeko ekitaldi desberdinak antolatuak izan ziren hala nola kantu poteoak, zinema gaualdiak, joko gaualdia, zirko tailerrak Oreka konpainiarekin. Bestalde Korrika urtea izanki, haurrek Korrika ttipin parte hartu zuten Ortzaizen gaindi baita ere Korrika handian Ortzaizeko ikastolaren kilometroan, Azkaraten, buraso batzuek eremanik.

Urte guziz bezala abenduaren 3an, euskararen eguna ospatu zuten haur, erakasle eta lankideek, egun berezi bat antolatuz.

2025ean gure ikastolak 40 urte beteko ditu, huna finkatuak diren ekitaldi batzuen berri:

- Otsailaren 8an : Bertso afaria Suhuskuneko gelan, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsulariekin.
- Apirilaren 6an : Mendikleta
- Apirilaren 27an: Nafarroaren eguna
- Maiatzaren 11an : Herri Urrats
- Ekainaren 21an: Ikastolako besta eta 40 urteak
- Uztaila: Talo salmenta Bidarraiko bestetan
- Agorrila : Gaueko merkatua Ortzaizen

Hain segur programazio hori 40 urteen kariatara aberastua izanen da

Xehetasun gehiago nahi baduzue, hurbil zaitzte ikastolako buraso batetaz. edo jin otsailaren 8an antolatuak diren ate idekitzeetara. Ikastolari buruzko xehetasun guziak aurki ditzazkeue [www.ortzaizeko-ikastola.net](http://www.ortzaizeko-ikastola.net) webgunean.



## ESKOLA PUBLIKOKO BURASOAK

Ortzaize-Arrosako eskola publikoetako burasoen elkarteak zenbait ekitaldi antolatu ditu familiak diruz laguntzeko eskola bidaien, ateraldi kulturalen edo haurren eskolatzeari lotu ekitaldien kariatara.

### Ekintza frango eraman dira 2023/2024 ikasturtean:

- Bixkotx salmenta Arrosako Eguberriko merkatuan
- Laia txokolategiko txokolate salmenta
- « Tartiflette/Brownie » salmenta errugbi gualdi baten kariatara
- Gasna salmenta aiten besten kariatara
- Bixkotx salmenta legebiltzarreko hauteskudeen kariatara

Ortzaiztarren eta Arrosatarren inplikazio eta emaitzarik gabe, hala nola herriko etxeen diru-laguntz0riak gabe, zail liteke burasoen elkartearentzat aktibitateen finantzatzea, horra iazkoak:

- Bidaia Cassen herrirat
- Ikusi Mikusi festibalean parte hartzea
- Ateraldia Labenne-ko zoorat
- Ikusgarri batzuen ikustera joatea
- Joko olimpiko lehialdia



Beraz, Ortzaizeko eta Arrosako burasoak eta hautetsiak eskertzen ditugu beren inplikazioagatik, haiei esker urte guzietz irakasleek pentsatu proiektu pedagogikoak gauzatzen ahal baititugu. Herriko haurrak oraino eskolako aktibitateez balia daitezten, gonbidatzen zaituztegu ahal bezain fite burasoen elkarteari juntatzea (kidetza kitorik da).

## SAN MIXEL ESKOLAKO BURASOAK

Aurten ere, San Mixel eskolako APEL buraso elkarteak mobilizatu da haurren ongizatea eta garapena sustatuko duen ingurune bat eskaintzeko. Horretarako, urte osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira, besteak beste, herriko gozozaleak poztu dituzten usaiako bixkotxa salmentak, kantaldi baten antolaketa eta ganer huste bat. Gainera, San Mixeleko buraso elkarteak gonbidatua izan da "Etxebizitza ekologikoaren besta" eta Lakako lasterketaldiaren antolatzaileen aldetik, edarien zerbitzua segurtatzeko eta parte-hartzaileen bazkariak antolatzeko.

Ekitaldi hauei esker, eskolako haurrek hainbat jarduera egiteko aukera izan dute. Alabaina, pilotan eta errugbian hasteko ikastaroak burutu dira, pilotako ligaren eta Nafarroa errugbi taldearen laguntza baliotsuari esker. Bestalde, zaletasun handiko adituen laguntzarekin, haurrak astebeteko zaldiketa-ikastaroetan aritu dira Ezpeletako "Le Cheval de 3" zaldi-zentroan. Han, zaldi gaineko trebetasunak eta akrobaziak erakutsi dituzte, guzien gozamenerako. Azkenik, eskolako familia eta lagunek lan bikaina egin dute gure ttipienen pausa-gelaren hobekuntzan, ipuin goxo bat entzun eta pausa lasaigarri eta atsegin batean atseden hartzeko espazio ezin hobe bihurtuz.

Ekitaldi guzi hauek, eskolako familien eta OGECko kideen laguntza handia eskatu dute, eta horiei bihotzez eskerrak eman nahi dizkiegu. Hari beretik, herriko elkarteak eta lehenago aipatu elkarteak ere eskertu nahi ditugu, urte honetan zehar izan ditugun elkarlanak eta truke atseginak direla eta. Eskerrak eman nahi dizkiogu ere herriko etxeari, aurten ere gure elkarteari eman dion laguntzagatik, baita herriko besta komiteari eta parropiari ere, ekitaldi hauen antolaketan beharrezkoa izan den materiala uzteagatik.

Bukatzeko, mila esker Ortzaiztar eta inguruko herritarrei, ekitaldi bakoitzean erakusten diguzuen sustenguagatik. Zuen laguntzari esker, gure motibazioa garatzen da, une goxo eta atseginak antolatzeko.

Laster arte, eta deneri 2025 urte bikaina opa dizuegu!

San Mixel APEL buraso elkarteko kideak





## ARROSA-ORTZAIZEN BETERANOAK

Elgarrekin indar gehiago.

2024ean, bi gertakari handik hori frogatu dute. Parisen, Olinpiar eta Paralinpiar Jokoak antolatu ziren, ehunka mobilizatu ziren boluntarioei esker. Eta kirolari frantsesen arrakasta izan da beren engaiamenduaren heinekoa. Notre Dame berreraikitzeo, ofizialeak elkartu dira obra ezin ederragoa gauzatzeko; egun guzietako lanei itzultzeak jadanik kezkatzen ditu.



Bitartean, gure beteranoen elkarteek jarraitzen dute ados ez izaiten Afrika Iparraldeko borroken bukaera datarekin. Gainera, gero eta guttiago izanez orain, haien alargunek ordezkatzeko dituzte. Gure elkartean bederen, giro ona eta elgar aditzea nagusi dira; hona froga joan den abenduaren 5ean.

## KANTA JAUNARI 2024: EUSKAL HERRIKO ELIZAKO KANTARIEN EGUNA ORTZAIZEN

Kanta Jaunariaren bidez, 2024eko Euskal Herriko Elizako kantarien eguna azaroaren 10ean Ortzaizeko eliza berrituan ospatu da. 330 bat kantari jin dira François-Régis Jasnot gure Jondoni Jakobe Parropiako Erretorak ospatu mezarat, origina joile Iban Erguy zelarik.



Meza osoki euskaraz iragan da, Kanta Jaunari elkarteak hautatu eskual kantuekin. Elkarte hau gure diosesakoa da, euskal liturgiaren alde lan egiteko sortua. Meza Irulegiko Irratiak, Xiberoko Botzak eta Lapurdi Irraak zuzenean zabaldu dute. Kanta Jaunari urte oroz Euskal Herriko kantariak kantu zerrenda bat eskaintzen du, ezagun edo berriak, hauek heda diten gure elizetan eskual liturgiaren sustatzeko, kantu ahantziak berrituz eta berriak ikasiz, urteko helburua delarik kantarien eguna.

Herriko Etxeak bere laguntza ekarri du urririk aparkaleku, komunak eta ezker pareta bazkariaren hartzeko eskainiz, aintzineko edaria parropiak eskaini duelarik.

Eskerrak bihurtzen ditugu gertakari berezi horren kausitzeko beren laguntza ekarri duten guzietan, zinez egun ederra baitzen !

## BORDEAUX-MONTAIGNEKO IUT ESKOLATIK 23 IKASLE ORTZAIZEN

Ludoteken kudeatzeko eta jokoaren medioz gunen erabiltzeko, bai eta bertze unibertsitate diploma batzuen eskuratzeko « Licence pro médiation » formakuntzan diren ikasleak jin zaizkute Ortzaizerat. Erakaskuntza hau Bordelen eskainia da, bakarra delarik Frantzian.

« Licence-Pro » delakoak, ikasleak moldatzen ditu jostaguneeen sorkunde, antolatzaile eta kudeatzaile bilaka dituen. Horiek ondotik, sozial eta kultura mailatan egitarauak eraman dezazkete jokoaren bidez.

Jostaguneeen animatzaile eta kudeatzaile Unibertsitate Diplomak nahi dituzte ludoteka kudeatzaileak moldatu, jokoaren sustatzaile eta sorrarazle bilaka daitezkeen.



Ortzaizeko jostaguneearen bizia aurkeztu izan zaizkete, Dominique HEGUYk 2007an sortu zuenetik, Arrosan artetik egonaldi bat egin, eta 2015ean berriz Ortzaizerat jin eta Herriko etxeak bere gain hartu zuen arte.



2021etik geroz oldar berri bat emanik izan zaio joko andana bat erosiz eta Bernadette ARGAIN lankide hartuz gunen horren zabaltzeko asteazken eta ibiakoz, 10etarik eguerdi arte, eta lekutat jostatzeko jiten diren eskolen ongi errezebitzeko.

Departamenduko Ludotekaren ekarpen guztiak aipaturik izan dira, Denen etxean, ezker paretean eta ate idekitzeak izan direlarik lankideen gunean eta Ortzaizeko bestetan.

Jostaguneearen funtzionamendua Bernadettek aurkeztu du.

Ondotik ikasle eta erakasleek beren galderak egin dituzte, hauek solas emankorra sortzen zutelarik, aipatuz bereziki jostaguneearen kudeatzeko laguntzak zoin beharrezkoak diren. Honek lan postu bat sorraraz dezake, ludoteka multzo batean lan egiteko gisan. Hndarrean ikasleak berak ausartu dira.

Ortzaizetik abiatzean eskertu gaituztete, dohatsu ludoteka bat herri ttipi batean kausiturik! Lekua ere egokia iduritu zaizkete, guziz argitsua, ontsa antolatua ezindua ez ahantziz eta kanpoan jokoetan artzeko moldearekin !



- **Ezkontza mugak**

Gure herrian aurten hiru bikotek ospatu dituzte 60 ezkontzeko urteburua: Mayie eta Pierrot Harizpurua, Kattin eta Ñaño Duhalde, Marie-Laure eta Erramun Erro. Hiruak Ortzaizen ezkondu ziren eta Ortzaizen bizia iragan dute. Segur eder da 60 urtez elgarrekin bizitzea, eta holako gertakariak merezi dute ospatzea! Hala nola herriko hautetsi zonbaitek bisita bat egin diete egun horietan, opari xume bat eskaini Herriaren partez.

- **Eguberriko oparia**

Eguberriko oparia 80 urtez goiti dituzten adin ederrekoek ardietsi dute Herriko etxearenganik, lekuko ekoizpenez osatua. 59 ziren aurten bisitatuak izan direnak. Xahar etxeetan bizi direnek ere preziatu dute ikusiz Ortzaizek ez dituela ahanzten!

- **Adin ederretakoen eguberriko bazkaria**

Adin ederretakoen Eguberriko bazkaria, xarmanki iragan da, elgarretartzeko parada, elgarrekin ongi jateko eta egunaz gozatzeko.

Aurten abendoaren 17an, asteartarekin, 69 Ortzaiztar ginen « la Ferme Gourmande » ostatuan. Egun ederra, bixta ederra, jateko hauta Laetitia eta Nicolas Burosek prestatuak, giro ezin hobea, egun hau ez dugu segur ahanztekoa!



# HERRIKO ONTASUNAK

## XERRENDA LOTIZAMENDUA:

Plazer dugu gelditzen zen azken lur saila herriko gazte bati, Andoni Lafuenteri saldu ahal izatea. Gisa horretan, lotizamenduko lur-zati guziek badute jabe. Lotizamenduarentzat egin mailegua ere 2025 urte hastapen huntan bururatzen da. Gune horrekin, enpresa bat plantatu da herrian eta 4 su berri agertu.

## LUR SALTZEA

Gaharduko araztegiaren ondoan den lur-eremua, ERNAUT enpresari saldua izan zaio.

Aspalditik herrian plantatu nahian ibilki zen. Gerora begira, lasaikiago proiektatzen ahalko da enpresa.



# HERRIKO LANGILEAK

Gaur egun, 11 langile kontratupean dira Herriko etxearekin:

- 3 langile administratibo: postu 1.5 Herriko etxeko idazkaritzan, Jeanine eta Floriane; postu 1/2 bat posta agentzian, Stéphanie.
- 2 teknikari langile: 1 zerbitzu teknikoetan, Xan eta bestea garbiketean eta kantuan, Germaine.
- 6 animazio langile, ATSEM bat barne, Marie (eskolari lotua 24 orduz astero), animatzaile 1, Evelyn (haurtzaindegian 18.5 oren astero), animatzaile laguntzaile, Naxhije (jantegia, haurtzaindegia, eskola 16.38 oren astero), animatzaile laguntzaile 1, Bernadette (jostagunea 4 oren astero), 2 animatzaile laguntzaile Nathalie eta Amélia (jantegia 4.70 oren astero eta 7.30 oren astero.)

## ZERBITZU ZIBIKOA

Hirugarren urteko, eskola publikoak neska gazte bat errezebitzen du zerbitzu zibiko batentzat. Aurten, Emma ROBINE (19 urte) da kontratupean. Aitzineko urteetan bezala, neska gazte horrek indemnitete bat hunkitzen du, Estaduak eta Herriko etxeak diruztaturik, bai eta ere "Mission Locale" egituraren laguntza, bere etorkizuneko hautuetan laguntzeko.

## ESKOLEN HITZA

### ESKOLA PUBLIKOA

Eskola publikoak, 2023/2024 ikasturtean 52 ikasle errezebitu ditu PS etik CE1 arte. Eskolako ikasle haundienek CP/CE1 ekoek urtea hasi dute Sararat itzuli bat eginez .Han « Ikusi Mikusi » haur eta gazte literatura azokan parte hartu dute, euskarazko liburuak eta ikusgarri batzu gozatu. Herriko etxearen partaidetzarekin, « klimaren astea » ekitaldian parte hartu dugu, gaia « URA » zelarrik. Parada ona izan da ikasleer altxor horren aipatzeko eta ikasteko nola zaindu . Eguberri ospatu dugu Arrosako eskolarekin elkartuz, elgarrekin kantu batzu emanaz, askari goxo bat partekatuz eta bukatzeko arratsean « Olentzero Gauda » ekitaldian parte hartuz beste eskolekin .

Urtean zehar, CP/ CE1 eko ikasleek proiektu kultural bat ereman dute, Pette Etxebarria artistaren laguntzarekin. Lehenik, literaturaren bidez, euskal mitologiako pertsonaien ezagutza egin dute (Tartalo, Mari, Herensuge, Basajauna, Laminak...).



Ondotik, erakaslearen laguntzarekin ipuin bat asmatu dute oihanean pasatzen dena aipatu mitologiako pertsonaiekin. Ipuin horren maketa eta apainketak eraiki dituzte, ipuina grabatua izan da eta azkenean bideo bat muntatu dute , hori dena Pette Etxebarriaren laguntzarekin! Proiektua ederki bururatu da, burrasoeri presentatuz lan eder hori, gaualdi ttipi baten inguruan.



2024 urtea, joko olinpikoen urtea izanez, gure eskolako haur guziek USEP (kirola) elgarretaratze batean parte hartu dute Garazin beste eskola batzuekin elkartuz. Beste lagunekin ainitz jokotan parte hartu dute atletismoaren inguruan; hala nola lasterketa, jauziak, botatzeak. Bestalde haur batzuk joko paralinpikoen ezagutza ere egin dute lekuan berean, pertsona elbarritu bat bezala.

Bukatzeko, uztailaren 5ean ,bakantzak aintzin, Arrosako eskolarekin egun goxo bat pasatu dugu joko olinpikoer buruz ere, zango baloinek zelaian jokoak antolatuz « mini-olympiades » gisa !



## SAN MIXEL ESKOLA

San Mixel eskolak 2023-2024 ikasturtea proiektu pedagogiko aberatsa anitz bizi izan du. Bere bokazioari leial, eskola hezkuntza akademiko hutsetik haratago doa, ikasleen gizarte-, kultura- eta ingurumen-gaitasunak garatzen dituzten jarduerak eskainiz. Kirola, kultura, ekologia eta elkartasuna ardatz hartuta, ekimen hauek ikasleek giro estimulatzaile eta aberasgarrian loratzea ahalbidetu dute.

### 1. Kirolak eta 2024ko Olinpiar Jokoak

2024ko Pariseko Olinpiar Jokoak prestatzen, eskolak jarduera anitz antolatu ditu talde-espirtua, errespetua eta iraunkortasuna sustatzeko:

- Euskal Herriko Pilota Ligarekin lankidetzan, ikasleek Euskal Herriko kirol enblematikoa den pilota ezagutu zuten.
- Garaziko Nafarroa klubarekin batera, errugbi-saio hezitzaileetan parte hartu zuten, errespetua eta lan kolektiboa ardatz hartuta.
- Ezpeletako "Le Cheval de 3" erakundearekin, haurrak astebete osoko zaldiketan aritu ziren, euren oreka hobetu eta animaliekiko errespetua sustatuz.
- Baigorriko igerilekuan igeriketa-ikastaroak egin zituzten, beren segurtasunerako ezinbestekoa den trebetasuna garatzeko.



Ikasturtea Olinpiar Jokoen gaineko eskolako jaialdi handi batekin amaitu zen. Ikasleek kirol olinpikoen hamarnaka irudikatzen zituen ikuskizun bat aurkeztu zuten, abesti, dantza eta antzerkia uztartuz. Besta honek olinpismoaren balioak —bikainatasuna, adiskidetasuna eta errespetua— ospatu zituen, eta ikasle, familia eta irakasleak sormen eta partekatze une batean bildu zituen.

### 2. Ingurumenarekiko konpromisoa eta naturarekin lotutako proiektuak

Eskolak ingurumenarekiko sentsibilizazioa ardatz pedagogiko nagusi bihurtu du. Ikasleek hainbat jardueretan parte hartu dute planeta babesteko helburuarekin:



- Ingurumenaren Astean: Uraren gaineko gaiaren inguruan, ikasleek birziklatutako objektuekin kolektiboa fresko bat sortu zuten, birziklapenaren eta baliabide naturalen kudeaketa jasangarriaren garrantzia azpimarratuz.
- 2023ko udazkenean, ikasleek 600 bat lore-bulbo landatu zituzten, ziklo naturala eta biodibertsitatearen garrantzia deskubrituz.
- 
- Baratze pedagogikoaren proiektua jarraitu zen, haurrak landareak behatzen, lantzen eta errespetatzen ikasteko aukera izanik.
- Jarduera hauek ingurumen-arazoen ulermen konkretua eta praktika jasangarrien sentsibilizazioa eskaini zieten ikasleei.

### 3. Gozoaren Astea

Gozoaren Astean, ikasleek tokiko produktuak ezagutu zituzten goizero gosari partekatuen bidez. Gurasoen Elkartearen laguntzarekin bultzatutako ekimen honek haurrak zapore berriak deskubritzera bultzatu zituen, eta elikadura oreka eta elkarbizitzaren kontzeptuak jorratu ziren.

### 4. Arte eta kultura ezagutza

Urtean zehar, kultura-hezkuntzak leku garrantzitsua izan du:

- Ikasleek sei ikuskizun desberdin ikusteko aukera izan zuten (antzerkia, dantza, musika, zirku-arteak...), Euskal Herriko Lurralde Elkargoari esker. Irteera hauek ikasleen sentsibilitate artistikoa piztu eta kultura-praktika ezberdinetara ireki zituzten.
- Gainera, ikasleek komiki-proiektu batean parte hartu zuten, bederatzigarren artea deskubritzeko eta euren irudimena komikiaren bidez adierazteko. Proiektuaren amaieran, "Txuri Malda"ren fotoeleberri bat egin zuten, irudiak eta testuak uztartuz. Proiektu honek argazkigintza, aktore-jokoa eta istorio baten egitura narratiboa esploratzeko aukera eskaini zien, bederatzigarren artearen magia eta adierazpen-ahalmena deskubrituz.

### 5. Lankidetzak eta ekitaldi kolaboratiboak

Eskolak hainbat lankidetzak antolatu ditu ikasleen hezkuntza-esperientzia aberasteko:

- Eguberriak Garaziko Santa Maria eskolarekin ospatu zituzten, eskolen arteko loturak giro alaian indartuz.
- LH 6ko ikasleak Baigorriko Donostei ikastetxeak antolatutako krosean parte hartzera gonbidatu zituzten, lehiaketa osasuntsua eta gazteen arteko adiskidetasuna sustatuz.
- Azkenik, ekainean, errugbi-zikloaren amaieran, ikasle guztiek Nafarroa Behereko ikastetxe katolikoen arteko topaketa adiskidetsuan parte hartu zuten. Jardunaldi honek trebetasunak praktikan jartzea eta kirol une atsegina partekatzea ahalbidetu zuen.

Ikasturte berrirako izen-emateak irekiak daude! Jarri gurekin harremanetan: [ecole-st-michel64@orange.fr](mailto:ecole-st-michel64@orange.fr)

## ORTZAIZEKO IKASTOLA

2024 urte bukaera hor dugu jada eta gure ikastolan izan diren urte guziko bizipenen bilduma egitea ez zaigu errega bete bete izan dugulako beste urte askotan bezala.

Urteko proiektuarekin Munduan gaindi bidaiatzea izan zen gure helburua, gelan Kontinente desberdinetan diren populuen izaera eta kultura aberatsen ezagutzea, gela guzietan antolatu ziren lan, aurkezpen eta hainbat aktibitate, azkenean taularatu genituenak ekaineko gure ikastolako bestan. Bi aipamen berezi egitekotan: Bidarraiko Xiril Albarezen bidaien bidez deskubritu ginuen guzia : bere bidaiatzeko modua, baldintza xumeak bezain gordinak, berarekin ukan ginuen zuzeneko harremanak haurren jakin min guziak asetu zituen harridura haundiz hein haundi batean.

Beste une sakon bezain arrapitzailea izan zen Korrika : Korrika ttipin beste eskolekin partikatu ginuen gure euskalduntasun harrotasuna bainan Korrika haundian parte hartzeak gu denen barneak emozio eta barne indar berritzaileak ezagutarazi zauzkigun euskararen uhain haundi hortan eramana izanak. « Euskara putzu sakon eta ilunetik denon artean ur gazi bat nola atera zen » bizi izan ginuen gure errailetan.

Beste hainbat ateraldiek, ikusgarri eder, astronomiari buruzko animazioak, literatur festibal, zinema, kirol aktibitate berezi, eta urte bukaeran hainbeste igurikatzen duten 3 eguneko egonaldiak koloreztatu zuten gure ikasturtea.



Hilabete huntan Arberoako ikastolako haurrentzat eraiki dituzten jokoak gazteenekin entseatzeko ari....



Argazkian Ikastolako buraso talde batek eraiki jostatzeko xoko berri bat

## KULTURA EKINTZAK

Kultura mailan, aitzineko urteei segi, hainbat ekintza berri dira aurten:

-Menta liburu dendan eta Ikas argitaletxeari haurrentako euskarazko liburuak erosi ditu Herriko etxeak, herriko liburutegiaren osatzeko eta eskaintza handitzeko.

-Joan den uztailaren 17an, Zinema kanpoan ekitaldia proposatu da, *Aupa Etxebeste!* filma proiektatuz herriko plazan, frantsesezko azpitituluekin.



Bestalde, « Ezkilaren taupadan » zikloaren ondorioz, Elizan atxemana izan zen Frantses Iraultza aitzineko ezkila sailkatua izan zen. Honek bere lekua atxemana du Elizan eta Hervé Larrieu eskultoreak sorkuntza bat proposatu zuen euskarri gisa.

## KULTURA ELKARTEEKIN ESKUZ-ESKU

Herriko elkarteei proposamen bat egin da. Kontsideratuz, herrian, bizi kulturala parte handiz elkarteek egiten dutela, eta kultura saila biziarazten dutela ekitaldiak antolatuz, izan ikusgarriak, tailerrak edo kurtsuak emanez, Herriko etxeak diru-laguntza gehigarri baten emaita proposatzen die 2025 urtetik goiti. Ikusgarri edo ekintza kulturala baten proiektua duen elkarteak, Herriko etxearekin harremanetan sartzeko ahal da horren aurkezteko eta Herriko etxeak erabakiko du zer heinetako diru-laguntza gehigarria ekartzen ahal dion.

Bi helburu ditu gogoeta honek:

-alde batetik, partez, Herriko etxearen gaitasunetan da kultura saila. Gaur egun, Ortzaize bezalako herriak, ez ditu behar diren baliabideak eskaintza kulturala baten egiteko. Horren ondoan, Euskal Herrian ohikoa den bezala, elkarte bizia azkarra da herrian eta eskaintza kulturala aberatsa segurtatzen da. Herriko etxearen proposamena da orduan, elkarten sustengu gisa kokatzea bere kultura arduraren segurtatzeko.

-bestetik, kultura saila profesionalak zailtasunak bizitzen ditu eta elkarteek horien jinarazteko gastu handiak jasan behar dituzte. Diru-laguntza publikoak ez dira baitezpada ezagutuak, ez nahikoak, batez ere euskal kulturarentzat. Herriko etxearen nahia da arlo horren sustengu gisa kokatzea eta ez dadin gastua, arrasta bat izan elkarteentzat.



## KULTURA PROGRAMAK BIDEAN

Bi kultura programa berriren prestaketa lanetan ibili gira aurten, 2025ean gauzatuko direnak:

- Geuretik Sortuak programa

Udalbiltzak proposatzen duen « Geuretik sortuak » programean parte-hartuko dugu 2025 eta 2026 urteetan. Ondorioz, 2025ean, artista bati harrera eginen diogu 3 astez eta bere egonaldiaren ondorioz, obra bat proposatuko du. Sorkuntza, komiki bat, literatura obra, antzerki bat edo labur-metraia bat izaiten ahalko da. « Geuretik sortuak » programak, kultura euskaraz sortu eta eskaintzeko xedea du, Euskal Herriko kulturen oinarrituz eta transmitituz. Hainbat artistak eginen dute egonaldi bat Euskal Herri osoko herrietan barna. Sortuko dituzten obra guztiak, 2026an aurkeztuko dira herri guzietan. Urte horretan, Ortzaizen, hainbat obra erakutsiak izanen dira beraz, euskarazko kultura bizi aberatsa segurtatuz.

Xehetasun gehiago Udalbiltzaren webgunean:



*Euskal Herria kontatu.  
Ahots anitzek kontatu.  
Batak besteari kontatu.  
Lokaletik unibertsalera kontatu.  
Herriz herri kontatu.*

GEURETIK SORTUAK.



- Ura proiektua

Bestalde, Lexantzü eta Urepeleko herriekin, programa kulturala berri bat abiatu dugu. Ideia da hiru herrien artean, kultura mailako sarete bat sortzea, elkar-trukeak sortuz eskolen, elkarteen baita herritarren artean. Elkartuz, kultura mailako baliabideak amankomunean jartzea da intentzioa. Uraren gaiaren tratatzea erabaki da, kultura, beste arloen lantzeko baliatzea lagungarri delako. Uraren inguruan erronka handiak dira gaur egun eta gai aproposa iduritu zaigu, atzoko, gaurko eta biharko erronken hurbiltzeko. “Gazteek diote” elkargoaren deialdiaren diru-laguntza jaso dugu honen eramaiteko. Adi egon, 2025ean, ekintzak proposatuak izanen zaizkizue beraz, ura lantzeko, kulturatik.



2024an, Herriko etxea lanean aritu da lehenetasunetan kokatzen duen euskararen arloan.

## KORRIKA

2024ko martxoaren 14tik 24era iragan den 23. Korrikan parte hartu du, kilometro bat erosiz Izpegiko bidean. Bi urtero AEK-k antolatzen duen ekitaldi hori euskararen alde egiten da, Euskal Herri osoan. Parte-hartzaile guzietan, izan Euskal Herriko egitura zein erakundeek, beren hizkuntzarekiko engaiamendua berresten dute momentu horretan.



## EUSKARALDIA

Azken urteetan Euskaraldian parte-hartzeko aukera izan baldin badugu, aurten itxura berri bat hartuko du, Euskalzaileen Topaguneak. Euskal Herri osoko erakunde publikoekin antolatuko delako ekitaldi hori. Korrika antolatzen ez den urtean eginen da Euskaraldiaren ariketa soziala, hizkuntza-ohiturak aldatzeko asmoz. Heldu den maiatzaren 15etik 25era iraganen da eta Herriko etxeak parte-hartuko du.

## EUSKARAREN URTAROA

Euskararen Urtaroa berriz, Euskal Elkargoak antolatzen du urtero, larrazkenean. 2024ean, azaroaren 22tik abenduaren 3ra iragan da. Herriko etxeak berak, ez badu ekitaldi berezirik antolatu, Ortzaizen asteburu berezi bat antolatu du Urzaiz elkarteak eta Herriko etxeak bere sustengua erakutsi dio elkartearen diru-laguntza segurtatuz horrendako. Herriko etxearentzat, garrantzitsua da ekitaldiak antolatuak izan ditzeten garai horretan herrian, parada onak baitira euskara plazara ekartzeko, nahiz eta argi dugun urte guziko lana izan behar dela. Elkarteekin bilkura bat antolatu zen joan den abenduaren 6an eta Urtaroa pasatu berri zela baliatu izan da, euskaraz eramaiteko bilkura bat-bateko itzulpena segurtatuz frantses hiztunendako.

## PLAZARA KOLEKTIBOA

Bururatzeko, Herriko etxean berean lan berezi bat eraman da 2024 urte huntan euskararekiko. Berriki sortu den Plazara kolektiboari dei egin dugu, herrian euskararen lekuaren gogoetatzen laguntzeko. Plazara kolektiboak eskaintzen dituen tresnen berri izan dugu eta horien erabiltzeko parada izanen dugu geroan. Manera horretan, euskararen garrantziaz eta beharraz eztabaidatzeko parada izan dugu eta elkarteekin gaia aipatzen ahal izan dugu. Arrosategiaren inguruan, seinaletikari buruzko lan bat eramanen da bestalde.

## HERRIKO ERAIKINAK

- Florentzarenea etxeko apartamendu batean sukaldea jarri da.
- Denen Etxeko berogailu-sistema berriztatu da.
- Ezker paretaren argiztapena LED teknologiarara egokitu da, eta komando-taularen berritze eta egokitzapen lanak egin dira.
- Jostalekuaren eta ezker paretaren inguruko zuhaitzen mozketa eta segurtatzea burutu dira.
- Mendilahatseko kanpoko paretan tindaketa eta leiho-aldaketa egin dira.
- Jangela kanpoko paretaren tindaketa.



## BIDEAK

- Landaburuko bide hastapenaren enrobotzea, bai eta ere Ahaize auzoa eta ingurukoena.
- Zubialdeko zubiaren arraberritzearen estudioa.
- Mentabordako bidearen indartzea.
- Mariurdinenea aitzineko euri uren berriz kudeatzea.

## SAREAK

- Ahaizeko sare elektriko, telefoniko eta argi publikoaren lurperatzea.
- Ahaize auzoko ur sarearen indartzea eta arraberritzea.
- Ahaize auzoaren segurtatzea, suteentzat ur-hartze bat instalatuz.
- Tentsio handiko linearen indartzea eta normetan ezartzea Haussu eta Urrizteia guneeetako eraldatze postuetan.
- Gaharduko tentsio handiko linearen lekuz aldatzea.

## MENDIKO BIDEAK


- Xeila batzuen pausatzea eta bi amerikar zubien arraberritzea.
- Arrabit Lepoko bidearen abiatzea berriz egin da eta bide zaharra arrañatua kadastrari egokituz.



# O BRAK

## HERRIKO ERAIKINAK

- Jangela barneko pareten berritze-lana
- Jangelako labearen aldaketa
- Ahaizemendiko frontoiaren tindatzea eta sarearen berritzea
- Ezker pareta: bandela eta isurkailuen aldaketa eta tindatzea, eta ateak tindatzea
- Aisialdi zentroaren eta jangela-sarreraren tindaketa lanak



2025

## BIDEAK

- Zubi Aldeko zubiaren berritzea.
- Aintziko bidea, Basaburuko bidea eta Xerrendako bideetan, osorik edo partzialki, asfaltaren berritzea.



## SAREAK

- Ahaize auzoko lanen bukaera: sare zaharrak desegitea.
- Arrosako zubitik Laka zubirainoko argiztapena LED teknologiarekin berritzea.
- Aitzineko urtean aipatu bezala, herriko depurazio-estazioko lekualdatzea Gahardura egiten ari da. Izan ere, lekualdatzearen aurkezpen bilera bat aurreikusia da urte hastapenean.
- Estazioaren lur-eremuaren libratzeak eta lan publikoen enpresaren lekualdatzeak aukera emango digute eremuaren berrantolaketa baten egiteko.

# LABORANTXA

## SU EMAITEAK

Mendiko suen galderak hobeki antolatzeko xedez, bilkura batera gonbidatu genituen herriko laborariak.

Lan-bilera honen helburua eremuak hobeki ulertzea eta, batez ere, suteen antolaketa bateratua egitea zen eremu egokietan.

Eztabaidak oso interesgarriak izan dira, eta babesteko erronkei buruz hausnartzera eraman gaituzte.

Ez da segur su emaite praktika mugagabeen jarraitzen ahalko denik, gizarte-presioarengatik. Denek ez dute praktika hau onartzen, eta "erretzea erretzeagatik" ez da su emaiteen erabilerarako baldintza bat izan behar. Tradiziozko praktika izanik, pastoral erabilerako helburuarekin mantendu behar da, eta gai honi buruzko sentsibilizazioa mendiko erabiltzaile guzien parte-hartzearekin egingen da.

Gaur egun, hautetsiek duten zailtasuna da oreka puntu bat atxemaitea. Laborantxa eredu bat behar da, garbitu eremuei laguntza ekonomikoa eskaintzen diena, kabalak ez badira ere beti lan horretarako erabiliak.

Jakinez, gure lan komunak denbora galdeginen duela, eta laborarien munduak momentu zailak bizi dituela ulerturik, eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan parte hartu duten guziei.

## GURE GAIN ELKARTEA



2024 urtea aberatsa izan da Gure Gain elkartearantz, gure herriko bizian funtsezko rola betetzen segitu baitu. Urtarrilean gure animatzaile Charline VERNIER-ek bere kargua hartu zuenean, helburua izan zen Lucie TROGNON bere aitzinekoaren lanak segitzea, loturak sortuz eta gure lurraldeko laborariak lagunduz.

Hona hemen urte honetako aktibitate nagusien ikuspegi orokorra:

**Enplegu Partekatua:** Gure Gain elkartek informazio bilkura bat antolatu zuen otsailean, eta 32 laborari bildu ziren. Bilkuratik landa, berriz kontaktatuak izan dira horien beharrak jakiteko. Geroztik, hainbat enplegu partekatu talde sortu dira: bat Heleta, Makea, Lekorne eta Aiherra estaltzen dituena, kontratatzea ekainaren 1ean hasi duena; eta beste bat Irisarrin, kontratatze lanetan dena.

**Tokiko Ekoizpen Zirkuituak:** lehenik, tokiko zirkuituak lantzeko lan talde bat osatu zen, gure lurraldeko ekoizle eta eraldatzaileak identifikatzeko. Haien ekoizpenak, merkatu-ateratzeak eta beharrak zehatz-mehatz biltzeko galdetegi bat sortu da, proiektu kolektiboak agertzeko helburuarekin. Bigarrenik, tokiko produktuak sustatzea izanen da helburua, komunikazio ekintzen bidez ekoizle eta kontsumitzaileak hurbilduz eta horien ikusgarritasuna handituz.

**Mendiko Bitartekotza Eguna:** Euskal hirigunearekin elkarlanean, gure animatzaileak mendiko bitartekotza egun batzuetan parte hartu du (Ursuia eta Baigura). Topaketa horiek mendiko erabiltzaile ezberdinekin elkarrizketak errexteko balio izan dute, aktibitate agro-pastoralak aurkeztuz eta mendi-ingurunean ukan behar diren jokabide egokiei buruz sentsibilizatu.

**Webgunea:** elkartek bere webgune berria abiarazi du, plataforma moderno eta atsegina, hainbat funtzionalitate eskaintzen dituena:


- Gure elkartearen eta bere misioen aurkezpen zehatza;
- Gauzatu ekintzen eta proiektuen inguruko berriak;
- Etorkizuneko ekitaldien iragarkiak;
- Gure lurraldeko ekoizleen eta salmenta guneen inguruko informazioa.



Bisitatu gure webgunea ondoko helbidean: [associationguregain.com](http://associationguregain.com)

Edo eskaneatu QR kodea zure telefonoarekin.

**Hautetsien Mobilizazioa:** Bururatzeko, azpimarratu nahi dugu gure elkarteko hautetsien mobilizazioa. Haien engaiamendua funtsezkoa da gure elkartearen proiektuak aitzina egin dezan. Molde berean, laborariak animatzen ditugu elkartearen bidez laguntza galdegitera.

 07.88.44.24.86

 [asso.guregain@gmail.com](mailto:asso.guregain@gmail.com)

## EUSKAL ELKARGOKO LABORANTZAKO PROIEKTU DEIALDIAK

Hainbat proiektu hautatu dira:

- Ortzaize, ur edangarriaren tentsio handia duten herrietan laborantza-praktikak hobetzeko ekintza-plan baten animazioan hautatua izan da.
- Baserri ttipien instalaziorako laguntzen kategorian: Costa Mixel.
- "Baserri berritzaileak eta agroekologikoak" kategorian: GAEC Konpasenia.
- "Gure ondare naturala" kategorian - Euskal mendietako ondare naturala babesteko aktibitateak: Lokarri elkarte (Baigurako mendigunea).

## MENDIEN GARBITZEA:

Betiere udako larreetara kabalen igortzea hobetzeko eta sustatzeko helburuarekin, laborantxa lan taldeak aurten Antzaramendi mendigunean 30 hektare inguru garbitu ditu girobroiatzailearen bidez.

2025ean ere operazioa berriz egitea aurreikusten da.

## NATURA 2000

### Baigurak badu bere DOCOB

2024ko abenduaren 3ko Gidaritza Batzordean, Heletako Herriko Etxean bildua zen biltzarrak "Baigura mendiguneko" Natura 2000 guneko helburu-dokumentuak onartu ditu.

### Testuingurua oroitarazteko

Baigura 2004an Natura 2000 izendatu zuten, bertan Europa mailan arriskuan dauden espezieak eta habitat naturalak baitaude. Izan ere, Baiguran ingurumen mota desberdinak badira, hala nola larreak, oihanak, ingurumen hezeak eta pentzeak, eta fauna eta flora aberatsa eta aniztuna bizi da bertan.

Orain arte ez zen gunean bertan eramateko ekintza-planak definitzeko helburu-dokumentu baten xede izan. 2022an zen Euskal Hirigune Elkargoa izendatu helburu-dokumentua apailatzeko egitura gisa, zazpi herrietako (Luhuso, Makea, Lekorne, Heleta, Irisarri, Ortzaize, Bidarrai) eragileek (hautetsiak, laborariak, oihanzainak, ihiztariak, arrantzaleak, lur-jabeak, elkarteak, erabiltzaileak eta adituak) osatu Gidaritza Batzorde batekin (GidaB).

### Nola apailatu zen helburu-dokumentua?

Helburu-dokumentua bi urteko hitzartze baten ondotik sortu zen, EHLGren eta Gune Naturalen Kontserbatorioaren sostenguarekin. Herrietako bilkurei, GidaB eta gaikako lantaldeei esker mendiguneko jarduera ekonomikoen diagnostiko bat egin zen. Emaizta horiek erronka ekologikoekin gurutzatu dira helburuak eta ekintzak finkatzeko mendigunearen babesteko eta aldi berean jardueren atxikitzeko.

Hona mendigunearen 5 erronka nagusiak, horietan hogeita hamar bat ekintza identifikatu dira:

- Laborantza eta hazkuntza ingurumenak eta larre iberiko-atlantikoak
- Mozteko pentze termo-atlantikoak
- Habitat hezeko guneak
- Oihan inguruneak eta dagozkien espezieak
- Gauñarak

2025ean gunea animatzen hasiko da ekintzen obratzeko: LIKN laborantza-kontratu proposamenak, oihan-kontratuak, animazio-egunak, sentsibilizazio-egunak, etab.





Egin beharrak bete eta, ezker paretako iguzkitako panelak elektrizitatea ekoizten hasi dira.

Etxe guzietara tapak banatuak izan dira liztor asiatiakoaren kasatzeko helburuarekin.

Argitze publikoaren area azkartua izan da eta Ahaizeko auzoan lurperatua.

Mendekoste astelehenez egiten den animazioa- Lakaren gaineko eta beheko parteak garbituak izan dira eta Derker zabortegei basan ere lan egin da elgarrekin bazkaldu aitzin.

## Etxeetako hondarkinen gutitze gogoetak

Bil ta Garbiri galdeginen zaio bederazko konpostatzeari buruz galdezketarik baduenez, gero beharrez herritarreri banatzeko.

### • Zuhaitz landatzeak

- Zubialde eta Lakako enborrak atera eta gero, mekanikoki lurra lehundua izan da.
- «Ortzaiztar bat zuhaitz bat» proiektu partehartzailea nun bakoitxak asmatzen ahal duen oihan bat baita tokian izanen diren zuhaitz motak bukatu berri izan da.
- Bilkura publiko bat iragan da martxoaren 6an, han asmatu izan dira erabaki orokorrak, batez ere zuhaitzen mota ezberdinak.



Behin proiektu idatzi eta adostua izan, Vincent Soubieille, ofiziale berezituak, koordinatzen ditu lanak.

Antzaramendiko obrak abiatu dira abenduan; tokiak mugatu, garbitu, zerratu, ondotik lurra prestatu eta landatzeko tenorea jin da.

Bere eskerrik beroenak Herriko etxeak eskaintzen ditu parte hartu duten herritar guzieri .

Ondotik eta manera berean, Zubialde eta Lakako parkeak hiru eskolen laguntzarekin landatuak izan dira eta berriz ere eskertzen ditugu. 3 guneeetan izanen diren informazio panelen testuak laster idatziak izanen dira.



Urtarrilaren 6tik  
aitzina

**Garazi -Baigorri**

**Lotura zuzen berriak:**

- Sohüta <> Donibane Garazi L.61
- Urepele <> Donibane Garazi L.64
- Atharratze <> Donibane Garazi L.65



16. linea bilakatzen da **62. LINEA**

3 joan-jin/egunka udan

## GARRAIOA NAHIERAN

Auto bat zuen bila heldu da nahi duzuen lekura eta eramaiten ahal zaituzte zerrenda batean hautatzen ahal duzuen leku batera (komertzio, osasun etxe, autobus geltoki etabar.).

### Argibideak



Oren bat joan aitzin gutienez eta hilabete bat lehenago gehienez erreserbatzen dut autoa.

Sartzeko bidaia erreserbatzen dut, joana bezala eta TXIK TXAK-ek ene helbidera gibelerak ekartzen nau.

**Erreserbaketak egiteko: 05 47 75 76 64.**

Zerbitzu hori astelehenetik larunbatera posible da, 7:30etatik 19:00etara. **Prezioak** : autobusen berdina eta harpidetzetan konda.



## AUTOPARTEKATZEAREKIN denak irabazle!




**Gidaria?** 100€ arte hilabeteke

BlaBlaCar Daily kondu pertsonala sortzen dut. Bidai bakoitzarentzat, TXIK TXAK-ek 2€ eta 3€ artean itzultzen daukit. Gastuak autopartekatze plataformak isurtzen ditu zuzenean, 100€ arte hilabeteke.



**Bidaiariak?** Kitorik!

TXIK TXAK-en bidaien kalkulatuzailea begiratzen dut untsa heldu zaidan bidaiaren hautatzeko. Hautatzen dut proposamen bat eta hortik, autopartekatze plataforman sartzen naiz. Eta kitto! TXIK TXAK-en perimetroan diren bidai guziaz kitorik dira.



## HELBIDERATZEA:

Karrika eta bideen seinale guztiak ezarriak izan dira, baita ere etxe bakotxaren zenbakiak. Etxe berrien zenbakiak talde manaketa baten ondotik ezarriko dira.



## AGENDA :

“De Strauss à Ravel” : Ipar Euskal Herriko Orkestra sinfonetikoak Ortzaizera jinen da 2025eko otsailaren 15ean. Kontzertu eder baten ikusteko parada ukanen duzue gure herriko elizan. Xehetasun gehiago edo txartelen erosteko: <https://www.ospb.eus/>



## ARRANTZA

### ABISUA UR BAZTERREKO JABE GUZIENTZAT

APRN elkarteak ur bazterreko jabeen kondaketa bat egiten du Errobi arroan, baita ere elkartearen kideen eguneratze bat.

Duela hainbat belaunaldi ur bazterreko jabe eta elkartearen kide baldin bazira, nahi gintuzke eguneratu zure deitura, helbidea, telefono zenbakia baita zure lu pusken zenbakiak.

Hortarako gurekin harremanetan sartzan ahal zira azpian abemanean dituzun telefono zenbaki, helbide elektronikoaren bidez edo gure ganat etorritz.

Ur bazterreko jabe baldin bazira eta zure arrantzako alokatze kontratuak ez baldin badituzu utzi, segida irakurtzen ahal duzue...

### ZERTARAKO ARRANTZAKO ALOKATZE KONTRATUAK UTZI LAPREN ELKARTEARI?

Ur bazterreko jabeen AAPPMA irabazteko xederik gabeko elkarteak, jabe horien eskubideak babesten ditu :


\*zuen jabetza pribatuaren sartzan diren arrantzaleak mugatuz eta kontrolatuz

\*zuen lurraldea zainduz, kutsadura eta basa arrantzaren kontra borrokatuz

\*laguntza tekniko eta aholkularitza juridikoa ekarriz

\*babes arrantza elektrikoa eginez edo kostu ttipiko inbentarioa (-40%)

\*haztegi eskaseko errekek alebinatuz



### Baigorriko Hondakintegia:

- astearte eta larunbatetan: 9:00-12:00; 14:00-18:00
- ostegunetan: 14:00 - 18:00



### Donazaharreko hondakintegia:

- astelehenetan: 14:00 - 18:00
- asteazken, ostiral eta larunbatetan: 9:00-12:00; 14:00-18:00

### Herriko etxea:

Astelehen-Astearte-Ostegun-Ostiraletan: 13:30- 18:00

Asteazkenetan: 9:00-12:00



idazkaritza@ortzaize.eus



05.59.37.74.62



Ur deipea:  
0637821167



EDF deipea:  
0972675064

44